

BAKEAN ETA ADISKIDETASUNEAN BIZITZEKO AKORDIOAK

3

IKASKUNTZA-EGOERA
IRAKASLEAREN LIBURUA

Lehen Hezkuntza



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

KREDITUAK:

©Iruñeko Udala

TESTUAK:

Ana Mendióroz Lacambra

Teresa Benito Aguado

Carlos Ciriza Mendivil

ITZULPENA:

Maramara

Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzua

ARGITALPENAREN KOORDINAZIOA:

Iruñeko Udal Artxiboa

ARGAZKIAK:

Iruñeko Udal Artxiboa

DISEINUA:

La Llorona

INPRIMATZEA:

Gráficas Biak

LG NA 1524-2025

BAKEAN ETA ADISKIDETASUNEAN BIZITZEKO AKORDIOAK




IKASKUNTZA-EGOERA
IRAKASLEAREN LIBURUA

Lehen Hezkuntza







AURKIBIDEA



7
SARRERA
DIDAKTIKO-
PEDAGOGIKOA

8
SARRERA HISTORIKOA

11
BAKEAN ETA
ADISKIDETASUNEAN
BIZITZEKO AKORDIOAK

14 HASIERAKO JARDUERA

16 ARTXIBOAN EGITEKO
JARDUERA

19 HIRIAN EGITEKO JARDUERA

21 AMAIERAKO JARDUERA

23
ERANSKINAK

24 1. ERANSKINA: "Gure neurria
diseinatzeko" lan-fitxa

26 2. ERANSKINA: Talde-lanaren
ebaluazio-fitxa

28 3. ERANSKINA: Udal Artxiboko
lan-materialak

43 4. ERANSKINA: Gremioek hirian
utzitako arrastoa

48 5. ERANSKINA: Landa-irteera
ebalutzeko behaketa-errubrika

49 6. ERANSKINA: "Gure gatazkak
konpontzen" lan-fitxa

54 7. ERANSKINA: "Kausa eta
ondorioa" ebaluazio-fitxa





SARRERA DIDAKTIKO-PEDAGOGIKOA

Oraina iraganetik ulertzeko eta etorkizunera proiektatzeko gertaera historikoak ezagutzeak zer urrats egin behar den jakitea eskatzen du, baita ezagutza hori errazten duten prozedurak zeintzuk diren jakitea ere. Historikoki pentsatzeak edo pentsamendu historikoa garatzeak, beraz, Historia ezagutzea eta Historiari buruzko ezagutzak izatea eskatzen du.

XX. mendeko 80ko hamarkadaz geroztik, Erresuma Batuan historiaren didaktikaren arloan egindako ikerketa puntakoenen arabera, beharrezkoa da prozedurazko kontzeptuak lantzea, ezinbestekoak baitira pentsamendu historikoa garatzeko. Lana ildo horretan kokatzen da. Ildo horrek garapen handia izan du 90eko hamarkadatik aurrera Kanadan eta AEBn, besteak beste Seixas, Morton, Wineburg edo VanSledrighte filosofoekin, eta gaur egun Australiara, Brasilerara eta Europara zabaldu da.

Seixas eta Morton (2013) filosofoei jarraituz, historialariek pentsamendu historikoa erabiltzen dute iturriak modu kritikoan eta sortzailean interpretatzeko eta narrazioak sortzeko. Lehen mailako edukiak landu behar dira galdera hauei erantzuteko: zer gertatu den, gertakaria nork egin duen eta non eta noiz gertatu den. Bigarren mailako edukiak ere landu behar dira, ikerketa historikoa egiteko behar diren trebetasunekin lotutako alderdi metodologikoei buruzkoak baitira.

Seixas eta Morton filosofoek **pentsamendu historikoaren sei kontzeptuak**, Historia irakasteko kontuan hartu behar direnak, jaso zituzten *The big six historical thinking concepts* (2013) liburuan. Hauexek dira kontzeptu horiek:

- 1- Garrantzi historikoa: gertakari batek duen garrantzia balioestea.
- 2- Iturria proba bihurtzea inferentzien bidez.
- 3- Aldaketa eta jarraitutasuna azaltzea.
- 4- Gertakarien kausa eta ondorioa ulertzea.
- 5- Ikuspegi historikoa garatzea, testuinguru ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturala kontuan hartuta.
- 6- Alderdi etikoa edo balio-iritzia agertzea

Metakontzeptu horiek garatzeak gure gizartean ezinbestekoa den **pentsamendu kritikoa** garatzen laguntzen du, baita beharrezkoa den enpatia garatzen ere, ez bakarrik iragana ulertzeko eta **ikuspegi historikoa** hartzeko presentismoa saihestuz, baita, errespetuzko **balioak** eta balio solidarioak eta demokratikoak garatzeko ere.

ERREFERENTZIAK

Seixas, P.; Morton, T. (2013), *The Big Six Historical Thinking Concepts*, Toronto: Nelson Education.

VanSledright, B. (2010), *The Challenge of Rethinking History Education: On Practices, Theories, and Policy*, New York: Routledge.

Wineburg, S. (2001), *Historical Thinking and other Unnatural Acts. Charting the Future of Teaching the Past*, Filadelfia: Temple University Press.

SARRERA HISTORIKOA

Batasunaren Pribilegioa gaur egun ezagutzen dugun Iruñearen sorrera-gutuna da. Dokumentuak, Karlos III.a erregeak 1423an emandakoak, ordura arte zeuden hiru jurisdikzioak, hau da, ordura arte beren erakundeak eta gobernuak izan zituzten hiru “burguak”, (Nabarrerria, San Zernin eta San Nikolas) bateratzen ditu. Hiru jurisdikzio, hiru komunitate politiko eta sozial izateak liskar eta borroka ugari eragin zituen, eta horien gertaerarik nabarmenena 1276ko Nabarrerriako Gerra izan zen.

XI. mendearen hasieran, jende gutxi xamar bizi zen Iruñean. Biztanle gehienak nekazariak eta apezpikuaren eta kabildoaren zerbitzariak ziren, katedralaren inguruan bizi ziren eta **“Nabarrerria”** deitzen zaiona eratu zuten. 1092an, Antso V.a Ramiritz erregeak Iruñeko hiriaren eta haren barruti guztien jabetza berretsi zion apezpikuari. Beste alde batetik, Donejakue Bidea biztanleriari indarra emateko ardatza izan zen; izan ere, apezpikuak babestutako eta erregeak lagundutako biztanle-talde berri bat kokatu zen hirian. Biztanle-talde hori amildegia, gaur egun San Domingo aldapa deitzen zaionak, bereizten zuen Nabarreriatik, eta, denborarekin, **San Zernin burgu** bihurtu zen. Alfontso Borrokalaria erregeak Jakako Forua eman zion 1129an.

XII. mendearen erdialdean, beste biztanlegune bat sortu zen katedralaren taulako artxidiakonoaren lursailetan. Biztanlegune hori mirabeak ez ziren nafarrek eta frankoek osatu zuten, **San Nikolas hiria** izena hartuta. San Nikolas burguen forua San Zernin foruaren oso antzekoa zen, baina errolda bat ordaindu behar zioten artxidiakonoari (Martinena, 1996).

Pribilegiorik eta frankiziarik ez zuenez, Nabarrerriak gero eta biztanle gutxiago zituen. Hori saihesteko, Antso VI.a erregeak Jakako forua eman zion 1189an. Beraz, hiru burguek eskubide bera zuten, baina frankizia eta gobernu desberdinak. Iruña **harresiz inguratuta** zegoen barnealdetik eta **sozialki zatituta**.



Burguen artean etengabe izaten ziren liskarrak, batzuetan erregearen ekintzek eta apezpikuak liskar horiek konpondu ahal izateko zituen zailtasunek eraginda. Egoera hori **Nabarrerriako Gerra**n jo zuen goia 1276an, burgua erabat suntsitu eta despopolatu baitzen. Horren ondorioz, 1319an, erregeak lortu zuen apezpikuak uko egitea Iruñeko jaurerriari.

1387an, Karlos III.a tronura iritsi zenean, politika bateratzailea hasi zen. Hiru urte geroago Iruñeko katedrala eraiki zuten. Eraikin horretan errege-zeremoniak egingo ziren; beraz, horrek erakusten du Iruña errege-egoitza izateaz gain apezpiku-egoitza ere bazela (Ramírez-Vaquero, 2018). Burguetako

zinpekoen eta alkateen arteko liskarren ondorioz, Vianako Printzearen aurkezpena egin zenean Iruñeko katedralean jazotako gertakariak banatutako hiria baketzeko beharra zegoela ikusi zen. 1423an, erregeak **Batasunaren Pribilegioa** eman zuen, burguetako biztanleen arteko desadostasunak konpontzeko asmoz, komunitate sozial eta politiko bakar bat bultzatuz.

Batasunaren Pribilegioak Iruñeko hiria bateratzeko eta antolatzeko xedapenak ezarri zituen. Xedapen horiek lehendik zeuden jurisdikzioen **batasuna**, jurisdikzioetako biztanleen arteko legezko berdintasuna, gatazkak konpontzen laguntzeko gobernu bakar bat ezartzea eta hiriaren sendotze sozial eta politikoa lortzea dituzte ardatz.

Nabarrerria, San Zernin eta San Nikolas jurisdikzioak erakunde politiko eta administratibo bakar batean bateratzea urrats erabakigarria zen Iruña bateratzeko eta antolatzeko. Ordutik, hiru burguek komunitate bakarra osatzen zuten, eskubide eta askatasun berberekin. Iruña osorako gobernu bateratu bat sortzeak burgu bakoitzetik bereizitako tokiko administrazioak ordezkatzeko zituen, eta horrek kudeaketa errazteaz gain, erabakiak hartzerakoan eraginkortasun handiagoa izatea sustatzen zuen (Pavón et al, 2023). Azkenik, sendotze sozial eta politikoaren bidez, Iruñearen nortasuna eta kohesioa **komunitate batu** gisa indartzea lortu nahi zen, barne-banaketak gaingintuz eta hiri osoaren garapena eta egonkortasuna sustatuz, bertako biztanle guztiak bakean eta adiskidetasunean bizi zitezen.



ERREFERENTZIAK

Martinena Ruiz, J.J. (1996) "Reseña de la evolución urbana de Pamplona. Desde el siglo XI hasta el derribo de las murallas en 1915", *Príncipe de Viana*, 146-176 or.

Ramírez-Vaquero, E. (2018), "La ciudad y el rey: renovación de la red urbana de navarra al final de la Edad Media", *Anuario de Estudios Medievales*, 49-80 or.

Pavón Benito, J., Hueso Pérez, A., Corpas Mauleón, J.R. (2023), *1423. El Privilegio de la Unión: un año, una ciudad, un reino*, Pamplona.

IKASKUNTZA-EGOERA



BAKEAN ETA ADISKIDETASUNEAN BIZITZEKO AKORDIOAK

Testuinguruan kokatzea:

Batasunaren Pribilegioa dokumentua erregeak eman bazuen ere, burguek beren komunitateak garatzea eta oparotasun handiagoa izatea ahalbidetuko zuen bake iraunkorra lortzeko zuten nahiaren ondorioz ere sortu zen. Dokumentuak hiru jurisdikzio zaharrak bakar batean bateratzen zituen, eta jurisdikzio horretan bizilagun guztiek pribilegio eta agintari berberak izango zituzten. Auzoen arteko mugak desegin ziren, eta “zinpekoen etxe” edo udaletxe berri bat eraiki zen, hiru burguen artean dagoen gunen batean. Zinpekoen etxe horrek gaur egun ere hor jarraitzen du.

Jarduera honen helburua da ikasleek Batasunaren Pribilegioaren garrantzi historikoa ezagutu dezatela eta uler dezatela **elkarrizketa** garrantzitsua dela inplikaturako alderdien parte-hartzearen ondorio diren akordioak lortzeko, dauden gatazkak konpontzeko. Beste helburu bat dokumentua bere garaian kokatzea da, **enpatia historikoaren bidez**. Honela, udalak pisuak eta neurriak kontrolatzeko eta zigorrak ezartzeko zuen ahalmena uler dezaten lortu nahi da.

Hasierako eta amaierako jardueren bidez, nabarmendu nahi da garrantzitsua dela adostutako akordioak lortzea bakean bizitzeko.

Pentsamendu historikoko elementuak:

- Garrantzi historikoa.
- Iturria proba gisa.
- Aldaketa eta jarraitutasuna.
- Kausa eta ondorioa.
- Alderdi etikoa.

Zer funtsezko gaitasun lortzen laguntzen den:

- Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.
- Matematikarako gaitasuna eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako gaitasunak.
- Gaitasun digitala.
- Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
- Herritar-gaitasuna.
- Ekintzailatza-gaitasuna.
- Kultur kontzientzia eta adierazpenerako gaitasuna.



Etapa: LH Zikloa: 3 Maila: 5	Ikaskuntza-egoeraren saio kopurua: 5	
Oinarrizko jakintzak: A1.1, A1.2, A1.3, A1.4, A1.5, A1.6, B1, C1.6, C2.2, C2.3, C2.5, C2.6, C2.7, C3.2, C3.3, C3.4,		
Ebaluazio-irizpideak:	Gaitasun espezifikoak:	Deskriptore operatiboak:
4.1	CE4	STEM5, CPSAA1, CPSAA2, CPSAA3, CC3
5.1, 5.2, 5.3	CE5	STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, CD1, CC4, CE1, CCEC1
7.1, 7.2	CE7	CCL3, STEM4, CPSAA4, CC1, CC3, CE2, CCEC1
8.1, 8.2	CE8	CP3, CPSAA3, CC1, CC2, CC3, CCEC1
9.1, 9.3	CE9	CCL5, CPSAA1, CC1, CC2, CC3, CCEC1
Jarduera bakoitzaren deskribapena: • HASIERAKO JARDUERA: “Hau neurri-nahaspila!”. Jarduera honetan, helburua da ikasleek praktikaren eta esperientziaren bitartez ulertzea bizitza publikoa garatzeko beharrezkoa dela adostutako akordioak lortzea. • ARTXIBOAN EGITEKO JARDUERA. “Nola lortu akordioak”. Udal Artxiboan eginen da bisita-lantegi hau, eta bi atal ditu: Lehenengo zatian, Artxiboko langileek artxibo bat zer den eta artxiboaren jatorria zein den azalduko diete ikasleei. Halaber, Batasunaren Pribilegioaren kopiak erakutsiko dizkiete eta dokumentu-euskarriek zer bilakaera izan duten azalduko diete modu praktikoan. Bigarren zatian, dokumentu-ikerketari buruzkoan, ikasleek, taldean lan eginez eta puzzlearen teknika erabiliz, Batasunaren Pribilegioa zergatik eman zuten, zein eragilek parte hartu zuten, bakea sendotzeko xedapenak zeintzuk diren eta Iruñeko udal-gobernuak handik aurrera zer zeregin izan zituen jakitea lortu beharko dute. • HIRIAN EGITEKO JARDUERA: “Gremioek hirian utzitako arrastoa”. Zereginaren helburua da ikasleek ezagutu dezatela gremioen arabera antolamenduak zer aztarna utzi zuen hirian. • AMAIERAKO JARDUERA: “Gure gatazkak konpontzen”. Jarduera honen helburua da ikasleek, Batasunaren Pribilegioak adostasuna lortzeko duen garrantzia aztertuz, ulertzea elkarriketa garrantzitsua dela gatazkak konpontzeko akordioak lortzeko. Ikasleek, elkarrekin ados jarrita, gatazka-kasuetan esku hartzeko eta bitartekotza egiteko protokolo bat egingo dute.		

Metodologia:

- Metodoak/Estrategiak: lan kooperatiboa, puzzlearen teknika, elkarriketa-estrategiak
- Taldekatzeak: lau lagun/bakarkako lana
- Materialak: lan-fitxak

Ebaluazioa:


- Tresnak: talde-lanaren ebaluazio-fitxa, landa-irteera ebaluatzeko errubrika, kausa eta ondorioa aztertzeko fitxa.
- Ebaluazio-uneak: behaketa bidezko ebaluazioa proiektua egin bitartean eta azken ebaluazio kooperatiboa.

Aniztasunarekiko arreta:

Talde heterogeneoak
Ebaluazio malgua

Jarduerak:

1. Hasierako jarduera: "Hau neurri-nahaspila!"
2. Artxiboan egiteko jarduera: "Nola lortu akordioak"
3. Iruñeko hirian egiteko jarduera: "Gremioek hirian utzitako arrastoa"
4. Amaierako jarduera: "Gure gatazkak konpontzen"





3.1. HASIERAKO JARDUERA

Jarduera kop. **1**

Saio kop.

2

TITULUA

Hau neurri-nahaspila!

HELBURUA

- Akordioek bizikidetzarako duten garrantzia balioestea.
- Plano errazak egiteko garaian, eskala aplikatzea.
- Batasunaren Pribilegioaren dokumentua ikasgelara ekartzea.
- Arazoei irtenbideak ematea.
- Neurriak estandarizatzeak eguneroko bizitzan duen garrantzia balioestea.

DESKRIBAPENA

Jarduera honetan, ikasleek, lau laguneko taldetan elkartuta, ikasgela neurtzeko **neurketa-unitate adostu** eta original bat sortu behar dute. Ondoren, talde bakoitzaren neurriak azaldu eta alderatuko dituzte, eta neurri bateratuak erabiltzeak duen garrantziari buruzko hausnarketa egingo dute. Horretarako:

- Irakasleak ikasgela neurtzeko eskatuko die ikasleei; horretarako, taldeak sortutako neurri bat erabiliko dute; ezin izango dute sistema metriko hamartarra erabili.
- Lantaldeko kideek itunak egin behar dituzte, eta erabili beharreko neurketa-unitatea hautatzeko akordioa sinatu eta zigilatu beharko dute.
- Erabiliko duten neurriari izen originala eta irudimentsua jarriko diote.
- Ikasleek neurriaren izena idatziko dute lan-fitxan eta paperean irudikatuko dute, ondoren ikasgelako planoan egin ahal izateko eskalan.
- Ikasleek ikasgelako planoan egingo dute, eta eskala beheko ertzean adieraziko dute.
- Ikasgela neurtzen eta irudikatzen bukatzen dutenean, planoak azalduko dituzte.
- Neurtzeko tresna guztiak mahai batean jarriko dituzte, ikasgelaren aurrealdean, tresnak alderatu ahal izateko.
- Taldearen bozeramaileak azalduko du zergatik aukeratu duten tresna hori.
- Ikasleei eskatuko zaie ikasgelak zabaleran eta luzeran zenbat neurtzen duen adieraz dezatela neurriaren izena erabiliz: nire ikasgelak 20 “kuni”-ko (aukeratzen duten izena) luzera du eta 10 “kuni”-ko zabalera. Ikasle batek arbelean idatziko ditu talde bakoitzaren neurria erabiltzearen ondorioz atera jdiren ikasgelaren neurriak. Emaiza oso desberdina izango da, erabilitako neurriaren arabera; hau neurri-nahaspila!
- Irakasleak ikasleekin hitz egingo du, **neurriak bateratzea** beharrezkoa dela uler dezaten. Eguneroko bizitzako adibideak jar daitezke: kilo bat urdaiazpiko, litro bat esne, badakigu zenbat emango diguten eta prezioak aldera ditzakegu, aurreikuspenak egin ditzakegu..., elkarrekin bizitzeko neurriak bateratzea garrantzitsua dela azpimarratuko da. Horrez gain, adieraziko da neurri horiek

agintariak **kontrolatu** behar dituztela iruzurrik ez izateko. Azken gogoeta gisa, ikasleek ulertu behar dute elkarrizketa eta adostasuna garrantzitsuak direla eguneroko bizitza baketsua eta bidezkoa izan dadin lortzeko.

- Geure buruari galdetuko diogu:
- Nolakoak ziren neurriak sistema metriko hamartarraren aurretik?
- Nola jarri ziren ados?
- Eta ados jarri ondoren, non egiazta zezaketen neurriak ondo zeudela?
- Ikasleek hipotesiak egingo dituzte, intelektualki ausartuko dira.
- Irakasleak azalduko du Erdi Aroan erresumek beren neurriak zituztela, eta udal-erakundeek zaindu behar zutela, gehienetan, merkataritzako pisuak eta neurriak errespetatzen zirela, deliturik, iruzurrik eta desadostasunik ez izateko.
- Irakasleak azalduko du Batasunaren Pribilegioa sinatu ondoren Iruñeko Udala bakarrik arduratzen zela neurriak errespetatu zitezen. Irakasleak Iruñeko Udalaren **neurrien taula** erakutsiko die ikasleei.
- Ikasleei eskatuko die Iruñean erabilitako neurriak gertuagotik ezagutu ditzatela Udal Artxiboa bisitatuz

TALDEKATZEA

Lau laguneko taldeak

BALIABIDEAK

1. ERANSKINA: "Gure neurria diseinatzen" lan-fitxa



METODOLOGIA

Lan kooperatiboa

EBALUAZIOA

2. ERANSKINA: Taldearen jarduera ebaluatzeko erkatze-zerrenda Lan-fitxaren zuzenketa.

BIBLIOGRAFIA

Galbete Guerendiain, V. (1953), "Algunas medidas empleadas en el antiguo reino de Navarra", *Príncipe de Viana*, 395-400 or.





3.2. ARTXIBOAN EGITEKO JARDUERA

Jarduera kop. 2

Saio kop. 1

TITULUA

Nola lortu akordioak

HELBURUAK

- Udal Artxiboa eta haren dokumentu-zaintzaren eginkizuna ezagutzera ematea.
- Bake soziala lortzeko eskubide eta betebeharrei buruzko akordio adostuak ezartzea garrantzitsua dela ulertzea.
- Dokumentuaren alderdi etikoa ulertzea.

DESKRIBAPENA

Bisita-tailerrak bi zati ditu.

Lehenengoan, Udal Artxiboko langileek ikasleei jakinaraziko diete zer den artxibo bat, dokumentu-zaintzak duen garrantzia eta Batasunaren Pribilegioaren dokumentu-euskarriek izandako bilakaera.

Bigarren zatian, dokumentu-ikerketari buruzkoan, ikasleek Batasunaren Pribilegioaren dokumentuarekin lan egingo dute, honako hauek identifikatzeko:

- 1423. urtea baino lehen zergatik ez zegoen bakerik Iruñean.
- Dokumentua idazteko esku hartu zuten eragileak.

1. ZATIA. ARTXIBOA EZAGUTZEN:

Artxiboko langileek harrera egingo diete ikasleei:

- Zer da Artxibo bat zer den, Udal Artxiboa noiz sortu zen eta zer eginkizun betetzen dituen azalduko dizkiete.
- **Hiru giltzako kutxa** eta **neurrien taula** erakutsiko dituzte.
- **Batasunaren Pribilegioa** aurkeztuko dute. Dokumentu horrek hiru burguetan bizi ziren pertsonen bakea eta adiskidetasuna bilatzen zituen, bakeak oparotasun ekonomikoa ekar zezan. Nahia burguen artean ordura arte zeuden desberdintasunak eta tirabirak desagertzea zen. Denboran zehar hori bermatzen lagundu beharko luketen alderdirik garrantzitsuenak ere arautu ziren Pribilegioan.
- Udaletzeko ezkaratzean Batasunaren Pribilegioaren **faksimile** bat dagela azalduko dute.
- Batasunaren Pribilegioaren 1533. eta 1619. urteetako **kopiak** erakutsiko dituzte, eta dokumentu-euskarriak izandako bilakaeraren arrazoia azalduko dute: pergamina, papera, liburua.
- Azalduko dute legeko baliozkotasuna eta benetakotasuna nola eman zitzaizkion dokumentuari.
- Hitzak, zein hizkuntzatan idatzi ziren.
- Idazteko erabilitako metodoa.

2. ZATIA: DOKUMENTU-IKERKETA

LAN-TEKNIKA

Modu kooperatiboan lan egingo da lau ikasleko taldetan, puzzlearen teknikaren bidez:

- **1. Taldekatzeak:** Lau ikasleko taldeak eratuko dira. Taldeko kide bakoitzari gaikako txosten bat emango zaio: A, B, C eta D.
- **2. Bakarkako lana:** Ikasleek bakarka landuko dute 10 minutuz egokitu zaien txostena.
- **3. ADITUEN BILERA:** Denbora amaitu ondoren, ikasleek "adituen bilera" batean lan egingo dute. Adituen bilera hori gai-multzo bera landu duten ikasleek osatuko dute. Bertan, beren jarrerak eztabaidatuko dituzte eta ikaskuntzak finkatuko dituzte. "Aditu"-talde bakoitzak testu bat sortuko du, proposatutako galderei erantzunez.
- **4. TALDERA ITZULTZEA:** Ikasleak beren oinarrizko taldera itzuliko dira, eta talde horretan, ordena errespetatuz, (A-B-C-D), testutik ateratako ondorioak azalduko dituzte.

Prozesuan zehar, irakasleak eta artxiboko langileek ikasleen galderei erantzungo diete, dokumentua ikusita sortzen diren zalantzak argitu ahal izateko.

GAIKAKO TXOSTENAK

A. Dokumentua: egilea eta idazteko esku hartu zuten eragileak. Dokumentuaren kausa eta helburua.

- Nork idatzi zuen dokumentua? Zer pertsona taldek sinatu nahi zuten?
- Zergatik idatzi zen?
- Zertarako idatzi zen?

B. Pertsonak:

- Zer xedapen ezarri ziren Pribilegioan hiri bateratua lortzeko pertsonen eskubideei dagokienez?
- Nola aukeratuko dira zinpekoak eta alkateak?
- Eskubide berdinak guztientzat?

C. Hiri fisikoa:

- Nola aldatu beharko du hiriak?
- Udaletxea eraikitzea.
- Burguen mugarriak eta armarriak desagertzea kanpoko mugarrietatik.

D. Komunitatearen gobernua:

- Merkataritzaren erregulazioa.
- Pisuen, neurrien eta iruzurren kontrola.

TALDEKATZEA

Lau laguneko taldeak





BALIABIDEAK

3. ERANSKINA: Udal Artxiboko lan-materialak

METODOLOGIA

Lan kooperatiboa, puzzlearen teknik

EBALUAZIOA

2. ERANSKINA: Talde-lanaren ebaluazio-fitxa

Lan-fitxaren zuzenketa





TITULUA

Gremioek hirian utzitako arrastoa

HELBURUAK

- Iruñeko testuinguru soziokulturala 1423. urtean nolakoa zen jakitea.
- Batasunaren Pribilegioan aipatzen diren ogibideak ezagutzera ematea.
- Ogibideen gremio-antolamenduak hirian utzi duen arrastoa identifikatzea.
- Pisuak eta neurriak erregulatu behar zirela ulertzea.
- Erdi Aroko Iruñeko planoak ezagutzea.
- Eskuratutako ezagutzak aplikatzea modu kritikoan.

DESKRIBAPENA

Udal Artxibotik ateratzean, irakasleak lan-fitxa emango die ikasleei. Zeregina arinagoa izan dadin, baliagarria izan daiteke ikasleei eskatzea fitxak lehenago, ikasgelan edo etxean lantzeko. (4. eranskina: Gremioek hirian utzitako arrastoa

Erdi Aroko ogibideak:

Irakasleak *Zertan lan egiten zuten hirietan bizi zirenek XV. mendean?* izeneko lan-fitxako lehen puntuan jasotako informazioak emango ditu.

- Taldeka, ikasleek atal hau beteko dute: Batasunaren Pribilegioan agertzen diren ogibideak (zilargileak, jostunak, mandataria, emakumezko erreka-daria edo birsaltzaileak eta erro-taria), bai eta beharrezkoak izateagatik bere ustez ziren beste ogibide batzuk ere.
- Ikasleei eskatuko zaie esan dezatela zergatik aipatzen diren ogibide horiek (irakasleak funtsezko ideia- bideratu beharko du elkarriketa, hau da, ogibide horiek guztiek pisuak eta neurriak erabiltzen dituztela, udaletxeko taulan ikusi den bezala)

Planoan orientatzea.

- Hori egin ondoren, ikasleei eskatuko zaie Udaletxea koka dezatela Iruñeko planoan, bai gaur egungo planoetan, bai 1423ko Iruñeko planoan, orientatu ahal izateko.
- Ikasleek ogibideei eskainitako gutxienez gaurko hiru kale aurkitu beharko dituzte, eta planoan markatu beharko dituzte.
- XV. mendean ogibideen izenak zituzten kaleak koloreztatuko dituzte ikasleek.
- Bukatzeko, talde bakoitzari eskatuko zaio lanbide bati buruzko ikerketa txiki bat egin dezala. Ogibide guztiak desberdinak izango dira.





GELAN

- Hurrengo egunean, ikerketa honi buruzko txostenak entregatuko dira.
- Talde bakoitzak ahozko azalpen txiki bat egingo du aukeratutako ogibideari buruz egin duen ikerketa azaltzeko. Horrez gain, hiriko planoan non kokatuta zegoen adieraziko du.

TALDEKATZEA

Lau laguneko taldeak

BALIABIDEAK

4. ERANSKINA: Gremioek hirian utzitako arrastoa
Iruñeko egungo plano (aukerakoa)

METODOLOGIA

Lan kooperatiboa

EBALUAZIOA

5. ERANSKINA: landa-irteera ebaluatzeko behaketa-errubrika: hiriko ogibideak
Azken txostenaren ebaluazioa

BIBLIOGRAFIA

Pavón Benito, J.; Hueso Pérez, A.; Corpas Mauleón, J.R. (2023), 1423. *El Privilegio de la Unión. Un año, una ciudad, un reino*, Pamplona.





3.4. AMAIERAKO JARDUERA

Jarduera kop. 4

Saio kop.

1

TITULUA


Gure gatazkak konpontzen

HELBURUAK


- Batasunaren Pribilegioaren alderdi etikoa lantzea, gatazka bati **elkarrizketaren bidez irtenbidea** emateko lagungarri gisa.
- Eremu guztietan (gizartean, pertsonen artean) dauden gatazkak konpontzeko elkarrizketak duen garrantzia ulertzea.
- Ikasitakoa aplikatzea esku hartzeko eta bitartekaritzako protokolo bat eginez, ikasgelan sortzen diren eskola-gatazkak konpontzeko.

DESKRIBAPENA

- Irakasleak azalduko du burguen garaiko Iruñearen egoera **gatazka** bat konpontzeko modua dela, eta adieraziko du haiek nola jokatu zuten aztertzeak ikasgelako gatazkak konpontzeko protokolo bat diseinatzen lagun diezagukeela.
- Ikasleek, fitxa erabiliz, gatazka baten irudikapen grafikoa aukeratuko dute: bi gezi-pareetatik, zein lotzen duzu gatazka-egoera batekin? Ikasleek beren arrazoiketa emango dute eta ikasgelako ikasleekin partekatuko dute.




- Testua irakurtzea: ikasleek bikoteka irakurriko dute fitxan proposatutako testua. Bertan, gatazkaren eta **gatazkari emandako erantzunaren** arteko bereizketa egiten da. Ondoren, bikoteek berriro erabakiko dute zein den gatazkaren irudikapena.



- Ikasleak biribilean jarriko dira ikasgelan, moderatzaile bat aukeratuko dute eta hark emango du hitza. Testuan garrantzizkotzat jotzen dituzten alderdiei buruz hitz egiten hasiko dira, eta egoera gatazkatsu bat identifikatuko dute, gatazka bat eta ematen zaion erantzuna ez nahasteko.

Adibidez: borroka bat ez da gatazka bat; gatazka borroka hasi aurretik izan zen desadostasuna da. Borroka gatazkari eman genion erantzuna da.



- Bikoteka lan eginez, fitxa osatuko dute. Batasunaren Pribilegioaren kasuan: esan al genezake zein izan zen gatazka eta zer erantzun eman zitzaion gatazkari?
- Irakasleak adieraziko die elkarrizketa eta arrazoiketa garrantzitsuak direla gatazka bat konpontzeko. Adibide gisa Batasunaren Pribilegioa erabiliko da eta Artxibora egindako bisitan bildutako informazioa erabiliko da.
- Bukatzeko, irakasleak ikasleei eskatuko die **jarduketa-protokolo** bat egin dezatela berdin arteko gatazkak konpontzeko.

TALDEKATZEA

Lau laguneko taldeak.
Talde handia.

BALIABIDEAK

6. ERANSKINA: "Gure gatazkak konpontzen" lan-fitxa

METODOLOGIA

Lan kooperatiboa bikoteka.
Elkarrizketa-estrategiak.

EBALUAZIOA

2. ERANSKINA: Talde-lanaren ebaluazio-fitxa

7. ERANSKINA: "Kausa eta ondorioa" ebaluazio-fitxa

BIBLIOGRAFIA

Pérez Casajús, L. (2012), *Bitartekotza eta gatazken konponbidea. Programazioa. Gida didaktikoa*. Arg. Nafarroako Gobernua. <http://hdl.handle.net/11162/46322>
Pérez Casajús, L. (2012), *Bitartekotza eta gatazken konponbidea. Ikaslearen liburua*. Arg. Nafarroako Gobernua. <http://hdl.handle.net/11162/46321>



Gure neurria diseinatzen

Taldekideak:



Ikasgela neurtuko dugu:

Gure neurriaren izena:

Gure neurria margotuko dut eta eskala margotuko dut

Taldekide guztien artean adostu behar duzue neurria. Garrantzitsua da espazio honetan margotu daitekeen elementu bat izatea, eskala egin ahal izan dezazuen.

Marraztu hemen zure ikasgelaren planoa



1. PARTE-HARTZEA:	1. TALDEA		2. TALDEA		3. TALDEA		4. TALDEA		5. TALDEA		6. TALDEA	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Taldeko kide guztiek aktiboki parte hartu zuten esleitutako zereginean.												
Taldeko kide bakoitzak modu ekitatiboan lagundu zuen lanean.												
Taldeko kide guztiak bertan izan ziren eta konpromisoa hartu zuten jarduera egin bitartean.												
2. ELKARLANA	1. TALDEA		2. TALDEA		3. TALDEA		4. TALDEA		5. TALDEA		6. TALDEA	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Taldeko kideek elkarrekin lan egin zuten zeregina burutzeko.												
Taldeko kideen arteko komunikazioa eraginkorra izan zen.												
Beharrezkoa izan zenean, taldeko kideek elkarri lagundu zioten.												
3. ANTOLAMENDUA	1. TALDEA		2. TALDEA		3. TALDEA		4. TALDEA		5. TALDEA		6. TALDEA	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Taldeak plan argi bat izan zuen zeregina burutzeko.												
Rolak eta erantzukizunak modu eraginkorrean esleitu ziren taldearen barruan.												
Taldeko kideek bete zuten plana eta arreta zereginean jarrita jardun zuten.												
4. GATAZKAK KONPONTZEA	1. TALDEA		2. TALDEA		3. TALDEA		4. TALDEA		5. TALDEA		6. TALDEA	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Taldeko kideek modu eraikitzailean eta errespetuz konpondu zituzten gatazkak.												
Iritzi-desberdintasunak sortu zirenean, adostasunera iristeko estrategiak erabili zituzten.												
Taldeko kide guztiek entzuten zituztela eta aintzat hartzen zituztela sentitu zuten prozesu osoan..												

5. SORMENA	1. TALDEA		2. TALDEA		3. TALDEA		4. TALDEA		5. TALDEA		6. TALDEA	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Taldeak ideia originalak eta sortzaileak aurkeztu zituen esleitutako zereginean.												
Ikuspuntu edo ikuspegi desberdinak erabili zituzten arazoari aurre egiteko.												
Ahaleginak egin zituzten ohiz kanpo pentsatzeko eta konponbide berritzaileak bilatzeko.												
6. LANAREN AURKEZPENA	1. TALDEA		2. TALDEA		3. TALDEA		4. TALDEA		5. TALDEA		6. TALDEA	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Taldeak egindako lana argi eta txukun aurkeztu zuten.												
Ikusizko baliabide egokiak erabili zituzten (adibidez, grafikoak, marrazkiak eta abar) aurkezpena hobetzeko.												
Taldeak erakutsi zuen aurkezpena egiteko prestatuta zegoela.												
7. EPEAK BETETZEA	1. TALDEA		2. TALDEA		3. TALDEA		4. TALDEA		5. TALDEA		6. TALDEA	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Taldeak esleitutako denboran burutu zuen zeregina.												
Denbora modu eraginkorrean kudeatu zuten epeak beteko zirela bermatzeko.												
Taldeko kide guztiek lanaren erritmoari eusten eta lana aurreratzen lagundu zuten.												



1. ATALA: ARTXIBOA EZAGUTZEN

1

HIRU GILTZAKO KUTXA ETA UDAL ARTXIBOA

Karlos III.a erregeak emandako dokumentuak, hau da, **Batasunaren Pribilegioak** hiru burguak edo biztanleguneak (San Zernin, San Nikolas eta Nabarrerria), ordura arte beren legeak eta agintariak zituztenak eta etengabe elkarren aurka zeudenak, bateratu zituen. Horren ondorioz, "jurisdikzio" edo hiri bakar bat, Iruñeko gure hiria, sortu zen.

Dokumentu hori, hain garrantzitsua zenez, **hiru giltzaz itxitako kutxa** batean gorde behar zen (giltza bat burgu bakoitzeko), inoiz ez aldatzeko edo iruzurrez ez aldarazteko. Hori da gaur bisitatzen ari garen **UDAL ARTXIBOAREN** jatorria.

Dokumentua artxiboan gorde izanari esker, gaur, 600 urte geroago, berriro kontsulta dezakegu. Horregatik da hain garrantzitsua artxiboen zeregina. Dokumentuak zaintzen dituzte eta gure eskubideak babesten dituzte.



2

DOCUMENTUA: BATASUNAREN PRIBILEGIOA. Dokumentu- euskarrien Bilakaera



Batasunaren Pribilegioaren jatorrizko dokumentua eskuz idatzita dago bi metro baino gehiago neurtzen duen PERGAMINO batean, **“gotiko etzana”** izeneko “kaligrafia” erabiliz eta hizkuntza gisa, berriz, **“nafar erdara”** erabiliz.

A Zer da pergaminoa? eta nola idazten zen pergaminoetan?

Pergaminoa material malgua eta oso iraunkorra da, eta bertan idatz daiteke. Arkume- edo ahuntz-larruak dira, oso modu berezian prestatzen direnak. **Larruak** garbitu, beratu eta uretan eta karetan sartuta bigundu behar ziren. Gero, ondu eta karrakatu egiten ziren ilea kentzeko, eta egurrezko egituretan tenkatzen ziren, kareharrizko hautsezko geruza bat ematen zitzaien eta geruza horri esker, tinta gehiegi xurgatzea eragozten zen. Amaitzeko, apar-harriarekin leuntzen ziren eta nahi zen neurrian mozten ziren.

Haien malgutasuna eta iraunkortasuna zirela eta, dokumentu asko egin zitezkeen. Dokumentuak **biribilkatuta edo liburuak** osatuz gorde zitezkeen, formatu erosoagoak baitziren.

Dokumentu horiek banan-banan idatzi behar ziren, idazluma izeneko tresnak erabiliz. Benetako **artisautza** zen, horretarako, kaligrafia menderatu behar zen eta dokumentu bakoitza sortzeko denbora asko behar zen, dokumentu bakoitza artisau-lan BAKARRA baitzen.

Kalamuak





B Gotiko etzana

1423ko Batasunaren Pribilegioa jasotzen duen dokumentua “gotiko etzana” izeneko letra mota erabiliz idatzi zen.



Jatorria: Mediavilla, C. (2005), *Caligrafía. Del signo caligráfico a la pintura abstracta*, Valencia.

ERREPASOA

Dokumentu garrantzitsu hau erregeak eman zuen



urtean, eta

batean idatzi zuten; horretarako, hizkuntza erabili zuten, erregearen administrazioak garai hartan erabiltzen zuen hizkuntza jasoar baita.

C Eta nola dakigu jatorrizko dokumentu bat dela?

Dokumentuaren egiazkotasuna egiaztatzeko, sinadurez gain zigiluak erabiltzen dira. Zigiluak, argizariz eginak, dokumentutik zintzilik daude eta zetazko xingola berdez lotzen zaizkio dokumentuari.

Karlos. III.a erregearen zigilua



Iruñeko hiriaren zigilu berria



D Ezinbesteko dokumentu batek formatu erosoago bat behar du: **Kopiak. Dokumentu-formatuen bilakaera**

Batasunaren Pribilegioa oso dokumentu garrantzitsua zen, dokumentu hartan Iruñeko bizitzaren alderdi guztiak arautzen baitziren eta, beraz, sarri samar erabili behar zen. Horregatik, zigilu astun zintzilikariak dituen pergamino biribilkatu baten formatua erabiltzeko **erosoa** dela iruditzen al zaizue?

Denborarekin, eta errazago eta jatorrizkoa hondatzeko arriskurik gabe erabili ahal izateko, jatorrizko dokumentuaren **kopiak** egin ziren denborarekin bilakaera izan zuten formatuetan. Lehenengo kopia pergaminoan egin zen 1533an eta liburu-itxura eman zitzaion.

Irudi hau ikus dezakegu:





Papera eta inprenta agertzea

XVI. mendean zehar paperaren erabilpena orokortu zen. Papera landare-zuntzez egiten zenez, material **ugariagoa** zen, ekoizteko erraza eta **merkea**, eta gero eta liburu-eskari handiagoari erantzuteko aukera ematen zuen.

Liburuak eskuz idazteko ondo prestatuta zeuden eta idazteko artea ezagutzen zuten eskulangileak behar ziren. Lehengaien arazoa papera erabiltzen hasi zirenean konpondu zen eta XV. mendean inprenta agertu zenean eta orokorrean erabiltzen hasi zirenean, liburuak **azkar** eta askoz merkeago ekoitzi ahal izan zituzten.



IKASITAKOA ERREPASATUKO DUGU:


Batasunaren Pribilegioaren jatorrizko dokumentua eta dokumentu horren kopiak idazteko erabili den materiala, modua eta tresna idatziko ditugu taulan. Testuan gauza berbera esaten da, baina itxura desberdinak hartu ditu erosoagoa eta maneigarriagoa izateko.



	MATERIALA	ITXURA	ZER TRESNA ERABILTZEN DA IDAZTEKO?
1423			
1533			
1619			

Testua hobeto ulertzeko, Juan Karlos Lopez-Mugartzak 2023an euskarara egindako itzulpen egokitua erabiliko dugu: *El Privilegio de la Unión de Pamplona, 600 años (1423-2023) / Iruñeko Batasunaren Pribilegioa, 600 urte (1423-2023)*, Iruña, NUP.

ARTXIBOAN IKERTZEN



Pertsonak

**Hiriaren
gobernua**

**BATASUNAREN
PRIBILEGIOAK**

**Hiri
fisikoa**

Dokumentua



Karlos III.aren
estatua Gazteluko
plazan

BATASUNAREN PRIBILEGIOA: Dokumentua



Batasunaren Pribilegioarekin lan egingo dugu planteatzen zaizkigun enigmei erantzun ahal izateko:

NOIZ IDATZI ZEN
DOKUMENTUA?

NORK IDATZI ZUEN
DOKUMENTUA?

ZER PERTSONA TALDEK
SINATU NAHI ZUTEN
DOKUMENTUA?

ZERGATIK IDATZI ZEN
DOKUMENTUA?

ZERTARAKO IDATZI ZEN
DOKUMENTUA?

Horretarako, Batasunaren Pribilegioaren dokumentuaren lehen zatia irakurriko dugu. Eman dizkizuegun lanerako dokumentuak BERTSIOAK dira. Bertsio horietan, testua euskarara itzulita dago.

Paper horietan jasota dagoena egia dela egiaztatzeko, 1423ko jatorrizko dokumentuarekin erkatu daiteke. Jatorrizko dokumentua, ikusi dugun bezala, Udal Artxiboan dago gordeta eta zainduta.



**Karlosek,
Jainkoaren graziaz Nafarroako errege eta
Nemouxko dukeak,
Orain eta etorkizunean honako dokumentu hauek ikusi eta
entzungo dituzten guztiei jakinarazten dugu**

ezen gure Iruña hiri oso nobleko San Zernin Burguko, San Nikolas Herriko eta Nabarreriako alkateek, zinpekoek (...) udalerriek jakinarazi eta aditzera eman digutela, ezen iragan garaietan, haiek hiru jurisdikzio, hiru alkate eta hiru zinpeko-etxe izateagatik, eztabaida, zatiketa, desadostasun, istilu, hilketa eta zauri anitz gertatu zirela haien artean, eta horien ondorioz, hainbat aldiz, gure hiri oso noblea deuseztatzeaz era erabat suntsitua izateko zorian egon dela.

(...)

Hori dela eta, eskatu ziguten, mesedez, ezen, kontuan har genezan antzinako garaietako gaitzek eta kalteek bere horretan jarraitzen zutela, zeren eta aipatu gure hiri oso noblea hiru jurisdikzio ezberdinetan eta berezitan zatikatuta baitzegoen, (...) eta, hala izanik, guk haien artean suerta litezkeen hainbertze gaitz eta eskandalu saihesteagatik, aipatu jurisdikzioetako prokuradoreak gure aitzinera etorritarazi ditugu, haiekin batera bidea eta modua aurkitzeko aipatu hiru jurisdikzio horiek eta haien errentak eta dermioak hemendik aitzina batera egon daitezen, betiko eta zatiezin, eta, bertzalde, aipatu hiru unibertsitateen egoera on eta baketsuari dagozkion gauza guztietan hornitu nahiko genituzke halako moldez non haiek eta haien ondorengoak bakean, lasaitasunean eta betiko adiskidetasunean eta haien artean eztabaidarik edo desadostasunik sortu gabe bizi daitezen.

Guk, aipatu gure Iruña hiri oso nobleko Burgu, Herri eta Nabarreriako hiru unibertsitate horien erregua entzunik, eta aintzakotzat harturik gure hiria Jainkoa, bakea, justizia era arrazoimena oinarritzat harturik fundatu zela, eta kontuan harturik eskandaluak era gaitzak saihestu eta bakean eta adiskidetasunean bizi nahi dutela, eta hura eman nahian ahal dugun neurrian, eta kontuan harturik, halaber, uste dugula haien arteko konkordia geurea ere badela, eta, era berean, gogoan izanik Jainkoa ezin dela ongi zerbitzatu, eta jendea ezin daitekeela haren grazian izan, bake, karitate eta konkordia garaian ez bada.

**BATASUNAREN
PRIBILEGIOA:
Pertsonak**


Batasunaren Pribilegioarekin lan egingo dugu planteatzen zaizkigun enigmei erantzun ahal izateko:

ZER XEDAPEN GARRANTZITSU HARTU ZEN BATASUNAREN PRIBILEGIOAN HIRI BATERATU BAT LORTZEKO?	
ZENBAT ZINPEKOK OSATU ZUTEN UDALETXEA?	
NOLA AUKERATU ZIREN ZINPEKOAK?	
NOLA AUKERATU ZEN ALKATEA?	
ZURE USTEZ, ZERGATIK AUKERATU ZUTEN METODO HORI?	
ZER XEDAPEN EMAN ZEN "PRIBILEGIOEI" DAGOKIENEZ?	

Enigmei erantzun ahal izateko, Batasunaren Pribilegioaren zati batzuk irakurriko ditugu. 2., 6. eta 11. kapituluaren zatiak daude. Eman dizkizuegun lanerako dokumentuak BERTSIOAK dira. Bertsio horietan, testua euskarara itzulita dago.

Paper horietan jasota dagoena egia dela egiaztatzeko, 1423ko jatorrizko dokumentuarekin erkatu daiteke. Jatorrizko dokumentua, ikusi dugun bezala, Udal Artxiboan dago gordeta eta zainduta.


2.

Hamar zinpekoak nolakoak izan behar diren eta hautaketa eta izendapena nola egin behar den.

OROBAT, aipatu prokuradore guztien ematearekin, nahi izan dugu eta agindu dugu, eta dokumentu honen bidez nahi dugu eta agintzen dugu, ezen egungo egunetik, honen datatik aitzin eta betiko, aipatu hiru jurisdikzioek baturik, eta errana den bezala, bildurik, urtero eta betiko, hamar zinpeko askietsienak izan beharko dituztela (...), zeinetatik bortz aipatu gure Iruña hiri oso nobleko aipatu San Zernin Burguko biztanle eta bizilagunen artekoak izanen baita betiko, hiru aipatu San Nikolas Herriko biztanle eta bizilagunen artekoak, eta bi, aipatu Nabarrerriako bizilagun eta biztanleen artekoak.

Burguko aipatu bortz zinpekoak, aipatu Herriko aipatu hiru zinpekoak eta aipatu Nabarrerriako aipatu bi zinpekoak, erran bezala, urte bakoitzeko eta betiko, agintaldiko urtea bete ondoren aterako diren aipatu zinpekoek izendatuak eta hautatuak izanen baitira (...) Eta beren urtea beteko duten aipatu hamar zinpeko guztiek zin egin beharko dute (...) gorroto, mesede eta maitasun oro gibelean utziz, zinpekotzat hautatuko dituztela Jainkoaren eta bere kontzientzien arabera gure hiri oso noble eta, erran bezala, batuaren aginte ona hobekien beteko dutela iritziko dutenak.

Eta hurrengo urterako hautatuak izanen diren aipatu hamar zinpeko horiek zina egin beharko dute, (...) baizik eta gure hiri noblearen herria, errentak, ondasunak eta gauza publikoa ongi era leialki zuzenduko dituztela. (...) Eta halaber honetaz gain, zin egingen dute (...) ezen batasun eta pribilegiozko dokumentu honetan jasota dauden gauza bakoitza eta guztiak begiratu, kontuan izan eta bete egingen dituztela, eta ez dutela deus ere egingen dokumentu honen aurka, ez zuzenean, ez zeharka, ez inoiz, ez inola, (...) aipatu gure hiri nobleko biztanle era bizilagunei ohartarazi, begirarazi eta betearaziko dizkiete honako batasun dokumentu honetan jasotzen diren gauza guztiak.





6.

Nolako alkate egon behar den eta zein egunetan esleitu behar diren alkatea eta kontseilariak, eta nortzuk izanen diren alkate eta zinpeko hastapenean.

OROBAT, aipatu prokuradoreen emate eta onespenarekin, guk errege eta jaun bezala, gure errege aginteaz, aipatu gure hiri oso noble batuaren bake eta konkordiaren onerako, nahi izan dugu eta agindu dugu, eta honen bidez nahi dugu era agintzen dugu ezen egundik goiti eta betiko, aipatu gure Iruña hiri oso noble eta, erran bezala, batuaren unibertsitate, kontzeju era erkidego osoak urteroko alkate bat izan behar duela, bere foruen, usadioen eta ohituren arabera auziak era eztabaidak entzun eta epaitu ahal ditzan.

Eta alkatetzarako (...) gizon onak eta aipatu gure hiri nobleko kontseilariak aipatu hamar zinpekoek izendatuak izanen dira urtero, iraileko Dona Maria bestaren ondorengo lehen igandean. Eta aipatu alkatea urte batean aipatu Burguko bizilagun eta biztanleen artekoa izanen da. Eta hurrengo urtean, aipatu Herriko bizilagunen eta biztanleen artekoa. Eta hurrengo urtean aipatu Nabarreriako bizilagunen eta biztanleen artekoa. Eta horrela urte bakoitzean eta betiko, urtez urte jarraituz.

11.

Nola denek elkarren pribilegioez gozatzen ahal duten.



OROBAT, Guk, kontuan harturik aipatu gure Iruña hiri oso nobleko San Zernin Burguko biztanleek eta bizilagunek pribilegio batzuk badituztela, zeinetatik ez eta zati txiki bat ere ez duten orain arte gozatu gure hiri oso nobleko San Nikolas Herriko biztanleek eta bizilagunek, ezta Nabarreriako biztanle eta bizilagunek ere, eta batasun hori irmoagoa eta baliagarriagoa izan dadin, gure ekimen propioaz,

ziurtasun osoz eta errege aginteaz nahi izan dugu eta agindu dugu, eta dokumentu honen bidez nahi dugu eta agintzen dugu ezen egundik goiti, gure pribilegio honen datatik goiti, aipatu Burgu, Herri eta Nabarrerria, errana den bezala, batuko biztanle eta bizilagun guztiek batzuen pribilegioak bertzeek goza ditzatela eta uler dadila aipatu pribilegio horiek haientzat guztientzat direla, bai oraingoak, bai etorkizunekoak betiko, bai eta eman zitzaizkien pribilegio horiek modu baketsuan erabili eta gozatu dituzten horiek ere (...).

BATASUNAREN PRIBILEGIOA Hiri fisikoa



Batasunaren Pribilegioarekin lan egingo dugu planteatzen zaizkigun enigmei erantzun ahal izateko:

ZER DA "ZINPEKO ETXEA"?	
NON ERAIKI ZEN?	
ZERTARAKO ERABILI ZEN?	
ZURE USTEZ, ZERGATIK AUKERATU ZUTEN LEKU HORI?	
ZER KENTZEKO AGINDU ZUEN?	
ZERTARAKO BALIO ZUTEN MUGEK?	
ZERGATIK EZ LITZATEKE MUGARIK EXISTITU BEHAR?	

Horretarako, Batasunaren Pribilegioaren 3. eta 19. kapituluaren zati batzuk irakurriko ditugu.

Eman dizkizuegun lanerako dokumentuak BERTSIOAK dira. Bertsio horietan, testua euskarara itzulita dago.

Paper horietan jasota dagoena egia dela egiaztatzeko, 1423ko jatorrizko dokumentuarekin erkatu daiteke. Jatorrizko dokumentua, ikusi dugun bezala, Udal Artxiboan dago gordeta eta zainduta.

3.

Zinpekoen etxea edo udaletxea non eraikiko den eta zinpekoen kanpaia non kokatuko den.

OROBAT, aipatu prokuradore guztien emate eta onespénarekin, agindu eta manatu dugu, eta dokumentu honen bidez agintzen eta manatzen dugu, ezen aipatu Iruñeko hiri oso noble eta, erran bezala, batu honetako aipatu unibertsitateko zinpekoek etxe bat, erran nahi baita, zinpekoen etxe edo udaletxe bat bakarra izan behar dutela betiko, non gure hiri noble honetako arazoak era negozioak ebazteko batzartuko diren.

Eta ahalik era lasterren eraiki behar dute udaletxea, erran nahi baita, zinpekoen etxea, Gallea izeneko dorrearen aitzineko lubakian, Nabarreriarren alderantz, eta aipatu dorrearen eta aipatu etxearen artean bide nahikoa utzi behar dute gaur egun ohikoa den tokitik edo hobekien irudituko zaien bertze nonbaitetik igarotzeko. Eta etxe horretan elkartuko dira aipatu hamar zinpekoak, eta beherago aipatzen den aipatu gure hiri oso nobleko alkateak hantxe izanen du bere audientzia. Eta Galleako dorrean edo hobekien iritziko duten lekuan kanpai bat jarriko dute, eta ezkila horren joaldiarekin batera aipatu gure hiri oso nobleko aipatu zinpekoak eta unibertsitatea elkartuko dira beharrezkoa izanen den bakoitzean. Eta aipatu udaletxea, erran nahi baita, zinpekoen etxea eraiki arte, aipatu zinpekoak San Zernin elizako ospitalean bildu ahal izanen dira, edo, nahiago izanez gero aipatu Burguko eta Herriko zinpekoen etxean.

19.

Nola agintzen den San Zernin, San Nikolas eta Nabarrerriako lurraldeen artean diren edo izan diren mugarriak erauztea.

OROBAT, batasun hori irmoagoa izan dadin eta aipatu gure Iruña hiri oso noblea eta, erran bezala, batuko herrian banaketa modu oro bertan behera gera dadin, aipatu prokuradoreen emate eta onespénarekin, eta gure errege aginteaz, nahi izan dugu eta agindu dugu, eta dokumentu honen bidez nahi dugu eta agintzen dugu ezen gure pribilegio honen datatik hamar eguneko epean, aipatu gure Iruña hiri oso nobleko aipatu kontzejuak erauaraz ditzala gure hiri oso noble honen barnean, San Zernin, San Nikolas eta Nabarrerriako lurraldeen artean ezarrita dauden mugarriak. Eta handik kanpo, aipatu gure hiri oso noblearen mugetan aipatu San Zernin, San Nikolas eta Nabarrerriako armarriak dituzten bertze mugarri batzuk izanen balira, arma horiek mugarrietatik ezabatuak izan daitezen nahi dugu, bai eta mugarri horiek beren lekuetan armarik gabe betiko gera daitezen ere. Eta nahi izanez gero, haietan gure hiri oso noblearen arma berriak ezar ditzaten.

BATASUNAREN PRIBILEGIOA Hiriaren gubernua



Batasunaren Pribilegioarekin lan egingo dugu planteatzen zaizkigun enigmei erantzun ahal izateko:

NORK EZAR ZITZAKEEN
TXANPON-TRUKEEN
PUNTUAK?

ORDURA ARTE HORRELA
IZAN ZEN?

KONTROLATZEN
ZITUZTEN ZINPEKOEK
PISUAK?

ZER GERTATZEN ZEN
IRUZURRA GERTATZEN
BAZEN?

EZAR ZITZAKETEN
ZIGORRAK ZINPEKOEK?
ZER MOTATAKOAK?

KONTROLATZEN
ZITUZTEN, HALABER,
OGIBIDEETAN ARITZEN
ZIREN PERTSONAK?

ZEIN ZEN HAIEN LANA?

Horretarako, Batasunaren Pribilegioaren 17. eta 23. kapituluaren zati batzuk irakurriko ditugu.

Eman dizkizuegun lanerako dokumentuak BERTSIOAK dira. Bertsio horietan, testua euskarara itzulita dago.

Paper horietan jasota dagoena egia dela egiaztatzeko, 1423ko jatorrizko dokumentuarekin erkatu daiteke. Jatorrizko dokumentua, ikusi dugun bezala, Udal Artxiboan dago gordeta eta zainduta.

17.

**Nola hiriko auzotarrek eta biztanleek eta
bizilagunek taulak edo truke-taulak para ditzaketen.**

OROBAT, aipatu prokuradore guztien borondate, emate era onespenerekin, Guk, gure zientzia ziurraz eta borondate atseginaz, nahi izan dugu eta agindu dugu, eta honako hauen bidez nahi dugu eta agintzen dugu ezen aipatu gure Iruña hiri oso noble eta, erran bezala, batuko oraingo edo etorkizuneko edozein gizabanakok, biztanlek eta bizilagunek askatasuna izan dezala aipatu gure hiri oso noblearen barnean, taula bat edo truke-taulak paratzeko nahi duen lekuan, eta haien mesedetan, truke horietaz trukeek ekarri ohi dituzten aipatu onurez baliatu eta gozatu ahal izanen dituzte kanbio-egileek egin ohi duten bezala.

23.

**Nola zinpekoek pisu faltsuen ezagutza izan behar duten
eta barrutiak eta ordenantzak egin ahalko dituzten,
bai eta zuzenketak eta zigorrak ere.**

OROBAT, Guk, gure aginteaz eta errege botereaz gure Iruña hiri oso noble honetako hamar zinpeko horiei, egun direnei edo etorkizunean izanen direnei, onartu diegu eta onartzen diegu dokumentu honen bidez, ezen haiek (...), pisu faltsuen jakinaren gainean egon daitezela justizia egin ahal izan dezaten, eta aipatu gure Iruña hiri oso noblearen eraendu eta gobernu onagatik, eta aipatu pisu faltsu horiek direla eta, aipatu gure hiri oso nobleko biztanleen era bizilagunen edota atzerriko edozeinen aurka barruti eta ordenantzak, zuzenketak eta zigor zibilak egin ahal izan ditzaten.

GREMIOEK HIRIAN UTZITAKO ARRASTOA



1

**ZERTAN LAN
EGITEN ZUTEN
HIRIETAN BIZI
ZIRENEK XV.
MENDEAN?**



Hiriak eta landako biztanleguneak bereizten ziren:

- **Itxuragatik:** Hiriak herritarrak biltzen ziren gunek ziren, eta normalean **harresituta** egoten ziren.
- **Biztanleen langintzagatik:** Hirian nekazaritza-jardueretan lan egiten zuten pertsonak (nekazariak, alegia) bazeuden ere, biztanleriaren zati handi batek, nekazaritzakoak EZ ziren jardueretan lan egiten zuen

Batasunaren Pribilegioan hainbat ogibide azaltzen dira, gogoratzen al zara zeintzuk?:

Gogoratu artxiboan landu duguna eta gogoratzen ez bazara...irakurri berriro lanerako testuak.

IRUÑEKO OGIBIDEAK	
BATASUNAREN PRIBILEGIOAN AZALTZEN DIREN OGIBIDEAK	GURE USTEZ, GARAI HARTAN ZEUDEN BESTE OGIBIDE BATZUK, BEHARREZKOAK ZIRELAKO

Ikusten dugunez, Batasunaren Pribilegioan Iruñean zeuden ogibideetako batzuk jasotzen dira. Ogibide horietan oihalak eta larruak neurtu behar ziren, zilarra pisatu behar zen eta aleazioen kalitatea kontrolatu behar zen edo txikizkako produktuen salerosketan (haragiak, barazkiak, esnea...) pisuen eta prezioen inguruko iruzurrak saihestu behar ziren; hori guztia, Iruñeko bizilagunei iruzur egin ez ziezaieten.

2


IRUÑEKO KALEETAN DAUDEN OGIBIDEAK




Normalean, ogibide berdinean aritzen zirenek **“gremioak”** eratzen zituzten. Gremio horiek erakundeak ziren, eta beren helburua haien jarduna arautzea eta interes profesionalak defendatzea zen, baita botere publikoen kontrola erraztea ere.

Era beran, pertsona hauek hurbileko lekuetan kokatzen ziren hirian, **kale berean**, askotan. Gaur egun, oraindik ere badira Iruñean duela mende batzuk toki horretan egindako ogibideen izena hartzen duten lekuak.

1 Hasteko, **Erdi Aroko Iruñeko planoari begiratuko diogu eta egungo Udaletxea non dagoen markatuko dugu**




EGILEAK: Martinena, Hueso eta García-Barberena



2 Planoari begiratuta, bilatu 1423. urtean zeuden ogibideen izenak zituzten kaleak

Kale horiek aurkitzeko, Iruñeko egungo planoak erabil dezakegu, lehen non kokatzen ziren ikusteko.

1423AN IRUÑEAN ZEUDEN KALEAK	AURKITU DUT	EGUNGO IZENA
SAN ZERNIN BURGUA		
RUA DE LA CUCHILLERÍA (Aiztodinda edo Aiztogile kalea)		San Frantzisko kalea
RUA DE LA TECENDERÍA (tejedores finos) (Ehule kalea: oihal finen ehuleak)		Ansoleaga eta Campana kaleak
RUA MAYOR DE LOS CAMBIOS (Txanpon-trukeen Kale Nagusia)		Kale Nagusia
RUA DE LA CORREYERÍA (Hedegile kalea edo Hededinda)		Kale Nagusia
RUA DE LA BURULLERÍA (Buruileria kalea edo Oihalgileena: oihal arruntak)		San Lorentzo kalea
RUA DE LA PELLETERÍA EDO PELLEJERÍA DEL BURGO (San Zerningo Zamardinda edo Zamargin kalea)		Jarauta kalea
RUA DE LA CARNICERÍA DEL BURGO (San Zerningo Harakin kalea)		Descalzos kalea
SAN NIKOLAS HIRIA		
RUA DE LA ZAPATERÍA Y FERRERÍA (Zapatadinda eta Arotz kalea)		San Anton kalea
RUA DE LAS TIENDAS (Dendadinda edo Dendari kalea)		Zapatería kalea
RUA DE LA TECENDERÍA (Ehule kalea: ehuleak, zetagileak, tornulariak)		San Nikolas kalea
RUA DE LA CARNICERÍA DE LA POBLACIÓN (San Nikolaseko Harakin kalea)		Pozoblanco kalea
NABARRERIA		
RUA DE LA TEJERÍA (Telleria kalea)		Telleria kalea
RUA DE LA CARPINTERÍA DE ZAGA EL CASTILLO (Zurgin kalea edo Gaztelugibelekoa)		Estafeta kalea
RUA DE LA CALDERERÍA (Perzdinda edo Galdaragile kalea)		Calderería kalea



3 Ogibideen izenak dituzten zenbat kale ezagutzen dituzu Iruñean?

.....

.....

.....

4 Orain, ogibide-izenak dituzten kaleak bilatuko ditugu udaletxetik hurbil. Udaletxetik abiatuta:

1. ZAPATERÍA KALEA
bilatuko dugu...

Nola iritsiko gara?:
Zapatería kalera iristeko, antzinako “Fruta Plaza” gurutzatu behar dugu, gaur eguneko Udaletxe plaza.

2. Zapatería kalera iritsiko gara:
Zer saltzen dute kale horretako denda askotan?:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



3. Imajina dezagun: Zapateria kalea horrelakoa izango al zen Erdi Aroan? Zapatak egingo zituzten? edo saldu baino ez?

.....

.....

.....

.....

4. Kale horretatik hurbil dauden zein beste kalek dituzte edo iraganean zituzten ogibide-izenak? (kaleen izenak azaltzen diren kartelak irakurtzen badituzu, jakingo duzu; izan ere, izenen azpian, askotan, jatorrizko izena agertzen da)




Ansoleaga kalea
(Tecenderias zaharrean):
Oihal finen ehuleak.

EGUNGO IZENA	ERDI AROKO IZENA



Irizpideak	Bikaina (4)	Ona (3)	Onargarria (2)	Ez nahikoa (1)
Parte-hartzea	Proposatutako jarduera guztietan bete-betea parte hartzen du, ideiak botatzen ditu eta galdera garrantzitsuak egiten ditu.	Proposatutako jarduera gehienetan modu iraunkorrean parte hartzen du.	Proposatutako jardueretan noizean behin parte hartzen du.	Proposatutako jardueretan ez du parte hartzen edo ez du interesik erakusten.
Interesa	Interes- eta gogo-maila handia erakusten du landa-irteera osoan.	Egindako jarduera gehienetan interesa erakusten du.	Jarduera batzuetan interesa erakusten du, baina beste batzuetan interesa galtzen du.	Egindako jardueretan interes gutxi edo batere interesik ez duela erakusten du.
Portaera	Portaera eredu-garria du une oro, arauak errespetatzen ditu eta ikasteko jarrera positiboa du.	Portaera egokia izaten du gehienetan eta ezarritako arauak betetzen ditu.	Batzuetan portaera desegokiak ditu edo ezarritako arauak ez ditu errespetatzen.	Portaera desegokia du etengabe, eta horrek eragina du jardueraren garapenean.
Behaketa	Arretaz behatzen du eta zehatz-mehatz jasotzen ditu bisitatutako ingurune alderdi garrantzitsuak.	Behar bezala behatzen eta jasotzen ditu bisitatutako ingurune alderdi garrantzitsu gehienak.	Gaingiroki behatzen ditu bisitatutako ingurune alderdi batzuk.	Ez du arreta jartzen bisitatutako ingurunearen xehetasunetan, eta ez du informazio garrantzitsurik jasotzen.
Ulermena	Behatutako kontzeptuak eta fenomenoak ondo ulertzen ditu, eta lotura garrantzitsuak egiten ditu ikasgelan ikasitakoarekin.	Behatutako kontzeptu eta fenomeno gehienak ondo ulertzen ditu.	Behatutako kontzeptu eta fenomeno batzuk ulertzen ditu oinarrian.	Behatutako kontzeptuak eta fenomenoak ez ditu ulertzen.

GURE GATAZKAK KONPONTZEN




Orain arte ikusi dugunez, 1423an, Iruñeko burguetako biztanleek gatazka ireki bat zuten elkarren artean, mendeak irauten zuena eta elkarren aurka borroka egitea eragiten zuena. Horren ondorioz, pertsonen bizitza korapilatsua eta zaila zen. Erregeak bazekien zein zen egoera, hori dela-eta, **bakea jartzeko** modu bakarra hiru burguak entitate politiko bakar batean bateratzea eta ordura arte gatazka eragiten zuten eta liskarra sortzen zuten alderdi guztiak arautzea zela erabaki zuen.

Burguetan bizi zirenek ere bakean bizi nahi zuten, lasai bizi ahal izateko. Iruñerako hain garrantzitsua den dokumentu hau irakurtzeak eta dokumentu hori gatazkan bakea jartzeko modu bat izan zela ulertzeak gure gatazkak nola konpon **ditzakegun** pentsatzen lagundu diezaguke.

Hasteko, pentsa dezagun zer den benetan gatazka bat.

1 Zer da gatazka bat?


Pentsatu: Bi gezi-pareetatik, zein lotzen duzu gatazka-egoera batekin?



Azaldu eman duzun erantzunaren arrazoiak:

Bozketa: Gehienek zer aukeratu duten jakiteko, eskua jasota emango dugu botoa. Zenbatu eta idatzi emaitza:

Goiko geziak:




Beheko geziak:



Orain, testua **irakurriko** dugu:

“Gatazka **pertsonen** (alderdien) **arteko desadostasuna** da, gauza bera nahi dutelako, desberdin pentsatzen dutelako edo elkar mintzen dutelako. Gizarte-harremanetan (familia, kuadrilla, institutua) ohikoa da gatazkak sortzea. Horrek ez du kezka eragin behar, ezta beldurtu edo errua leporatu ere. Gatazkak **tratatzeko modua** da garrantzitsuena, zeren, tratatzen ditugun moduaren arabera, modu baketsuan konpon baititzakegu eta bi alderdiek zerbait irabaz dezakete, baina enkistatu edota larriagotu ere egin ditzakegu, eta horren ondorioz, bi alderdietako batek, edo biek, galdu dezakete eta gaizki sentitu daitezke. Gatazka zerbait negatiboarekin (borroka, haserrea, liskarra, sufrimendua, inhibizioa...) lotu ohi dugu. Alabaina, desadostasuna edo desakordioa baino ez da. Normalean, gatazka eta gatazkari ematen diogun erantzuna nahasi egiten ditugu. Ihes eginez edo eraso eginez erreakzionatzea izaten da joera, eta horrek arazoa larriagotu egiten du. Gatazka **pentsatuz** konpontzen saiatzen bagara, konpontzeko aukera gehiago daude, eta alderdien arteko harremana hobetu ere egin daiteke”.

Orain birpentsatu: Zure ustez zein da gatazka?



Aipatu zure ustez gatazkatsuak diren egoerak:

Egoera gatazkatsuak ikasgelan partekatuko ditugu, ikasle batek arbelean idatziko ditu eta guztion artean esango dugu gatazkak diren edo egoeraren batean gatazka eta ematen zaion erantzuna nahasi egiten diren.

Adibidez: borroka bat ez da gatazka bat; gatazka borroka hasi aurretik izan zen desadostasuna da. Borroka gatazkari eman genion erantzuna da.

Aztertu: Batasunaren Pribilegioaren kasuan: esan al genezake zein izan zen **gatazka** eta zer **erantzun** eman zitzaion gatazkari?

BURGUEN IRUÑA	
GATAZKA	
GATAZKARI EMANDAKO ERANTZUNA 1423RA ARTE	
GATAZKARI EMANDAKO ERANTZUNA BATASUNAREN PRIBILEGIOAN	


Gatazka bati erantzutea:

Gatazka bat aztertzeko, jakin behar da **ihes egin** dezakegula edo **eraso egin** dezakegula. Konponbide horiek eta animalienak berdinak dira, ateratzen zaizkigun lehenak dira (senezkoak).

Baina, era berean, pentsatu dezakegu, **hitz egin** dezakegu eta akordioak lor ditzakegu. Aukera hori landua da eta bereziki gizakiek dute.

Horretarako, **erabaki aurretik, honako hau aztertu behar da:**

Zer gertatzen da?, kausak, pertsonak nola sentitzen diren, pertsonen sentimenduak, premiak eta gatazka konpontzeko modurik hoberena zein den aztertu behar da.



Gatazkek konpontzeko moduak azaltzen diren irudia ikusiko dugu eta gatazkan sartuta dauden pertsona guztien interesei erantzuteko gure ustez positiboena dena aukeratuko dugu.

Cornelius, H.; Faire, S. (1995), *Tu ganas y yo gano. Cómo resolver conflictos creativamente.... y disfrutar con las soluciones*, Madrid: Gaia.

2 Batasunaren Pribilegioa gatazka baten konponbidea

Gogoratzen al dugu erregeak hori nola adierazi zuen Pribilegioan? Erantzuteko, ikasgelako Artxibora joko dugu, hor baititugu gordeta Pribilegioaren kopiak, Artxiboan eman dizkigutenak, eta galdera hauei erantzungo diegu:

1423: GATAZKA ETA KONPONBIDEA	
ZER GERTATZEN DA?	
KAUSAK	
NOLA SENTITZEN DIRA PERTSONAK?	
ZER SENTIMENDU DITUZTE?	
ZER PREMIA DITUZTE?	
ZEIN DA GATAZKA KONPONTZEKO MODURIK EGOKIENA?	



3 Gatazkak konpontzeko protokolo bat egiten:

Orain, taldeka, ikasgelako gatazkak konpontzeko protokolo bat egingo dugu. Protokolo horrek kontuan hartuko du konponbidea lortzeko, arrazoibidea eta elkarrizketa erabiliko direla eta tartean sartuta dauden alderdi guztiei entzungo zaiela.

Batasunaren Pribilegioa lantzeko egokitutako liburu honetan oinarritua: PÉREZ CASAJÚS, L. (2009)
Bitartekotza eta gatazken konponbidea. Ikaslearen koaderno, Iruña: Nafarroako Gobernua



KAUSA ETA ONDORIOA


Izena:

Data:

Gertaera edo prozesua: **BATASUNAREN PRIBILEGIOA**

Erabaki zer gizabanako, talde eta gizarte-indar egon ziren tartean sartuta Batasunaren Pribilegioan.

Ondoren, aztertu talde eta pertsona horiek zenbaterainoko eragina izan zuten gertaera historikoan. Marraztu X bat triangeluaren barruan, taldeek, pertsonak edo gizarte-baldintzek gertaera historikoan (Batasunaren Pribilegioa) zenbaterainoko eragina izan zuten adierazteko. Zenbat eta hurbilago egon X hiru elementu horietako batetik (pertsonak, taldeak, gizarte-baldintzak), esan nahiko du zure ustez alderdi horrek izan duela eragin handiena.



Azalpena: Zergatik kokatu duzu pertsona edo talde hori kokatu duzun tokian? Zer zeregin izan zuen pertsona eta talde bakoitzak?

.....

.....

.....

.....



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala